

Errejionalismoa eta polbora

Zeruko Argia, 679. zk., 1976-03-14: 5.

Guri dagokigun *erritasunari* nahi dioten deitura erantsiko diote letrerogile berriek, baina "errejionalismo" hau ez du probintzialismoak inbentatu, aurretik inbentatua bait zegoen.

Polbora bezala.

Jakina, aspaldi asmatua den polbora honek, surik egingo badu, lehorrik behar du egon.

Eta orain, Fragak busti nahi.

Ondamen-lan hontan ari direnei laguntzea izango litzateke, denbora baino lehen gure erriko polbora hau, agertu daitezkeen bele-putreei tiroka erretzea.

Gure etsaiei jokia egitea.

Ikasi beharko dugu garaiz-garai eta arazoz-arazo egin beharko duguna egiten.

Gehitu eta gorde dezagun gure sutautsa.

Gure erriak jakingo du arazo nagusiak iristen direnean noiz-non eta nola erre.